Sagardotegiak zabalik

TXOMIN GARMENDIA

Ain gogozko ditugun sagardotegiak zabaldu zaizkigu eta egarriak kentzeko moduan izango gera noski. Joan zan aste ortan mordo bat zabaldu zala badakigu, eta aste ontan zabalduko dira gaiñontzekoak.

Ilbeltzaren 9'an, Amezketa'ko sagardotegiaren zabaltzen zala-ta, an giñan Telleria bertsolaria eta biok; ango giroa alaitu asmoz joanak. Oso etorkizun ona ikusten zaien sagardoak daudela esan bear. Nagusi jauna ere pozik zegon, mama ederrak erten zitzaizkiola-ta. Nork erana izango dula esango nuke.

Gaurko sagardotegiak ez daukate garai bateko aien antzik; bukatu ziran ikullu baztarretako kupelak; lekurik txukunenaren pareko dauzkagu gaurko mama gozoak, erosotasun guztiz osatuta. Adibidez: Aduna'ko Aburuza'k gaur zabalduko du, eta naiko sagardo eran ondoren, kape ederra artu nai dunak urruti gabe izango du aukera. Burutu ditun langintzak, merezi dute ikustea.

Jakin dedanez, Olaberri'ko Etxe-Zuri baserrian ere ez dute nolanaiko sagardotegia zabaldu. Ezerren okerrik ez dala, datorren igandez gera aruntz joatekoak eta gertutik ikusteko moduan izango gera. On egin deigula.

Sanantonak

Gure aurrekoak bazuten fedea santuangan; argatik dauzkagu gaur ainbat ermita, eta jaialdi. Santu bakoitzari eginkizun berezia emango zioten gaiñera. Adibidez: Ilbeltzaren 17'an degu San Anton eta aberean zaintzaille degula badakigu. Gaur garai bateko federik ez badaukagu ere, abere prankok artuko dute beren bedeinkapena. Aurten igandez egokitzen delarik, zernaitarako ere egun aproposa dala esan bear.

Nik dakidanetan, Getari degu pestatan Sanantonetan; Berastegi'n eta beste zenbait erritan izango da berezitasunik, ermitak dituztelako eta abar, baiña Getari'ko ori apartekoa izaten da. Badet eskarmenturik asko, Elkano'ren erri jator aretzaz eta argatik ari naiz idazten.

Garai batean bixiguak borobiltzen zun Getari'ko pesta, eta jandako mokadu gozoak gogoan

Sagardotegi batean./USOZ

dauzkagu. Bixigua gaur, arrairik garestienetako bat jarri zaigu eta usai eginda konpormatu bear, gu bezelakoak.

Bixigurik ez bada ere, izango da ordea zer jan eta zer eran Getari'n; bertsolari, musikari eta abarrik ere ez da paltako. Beraz, eguraldiak laguntzen badu, izango da jendea ain maitea degun erri polit artan.

Beste leku batean eginkizunak dauzkatelako, ez det aurten zapalduko Getari; artu bezate nere atal onen bidez, lagun eta adiskideak nere basarkadarik sendoena eta ondo igaro.

Getari polita degula, edonork daki noski, baiña ari diran langintzak burutzen dituztenean, ez da jarriko txantxetakoa. Itsasoa eta txakoliña dituzte ogibide nagusiak getariarrak, baiña turismoa ere indartuko dala esango nuke. Bear bada, eguzkiak ez du berotuko ego aldean bezela; alako leku lilluragarriak ikusiz, jan eta eran ondo egiñez paseatzen ederra izango da ordea.

Arrazoi aundiz, bertako jende asko ari da konturatzen, lekurik ederrenak bertan dauzkagula eta opor egunetan, «bertan goxo» esanez asko ikusten ditugu.

Getari-zale itxua naiz ni,
ain da leku atsegiña,
arrai ederra aukeran dute
eta berdin txakoliña.
Lagun jatorrak inguratzean
berriz borondate piña;
naiago nuke alik azkarren
berriz bilduko bagiña.